



**EKONOMIA ETA
GIZARTEA
SUSPERTZEKO
PLANA. NUKFren
PROPOSAMENAK**

1. SARRERA.

COVID-19aren pandemiak aurrekaririk gabeko krisian murgildu du gure gizartea. Hasteko, gure Komunitatean milaka pertsona dira (dozenaka mila Estatuan, milioika planetan) haien osasuna larriki kalteturik dutenak, batzuetan bizitza ere galtzeraino iritsita.

Osasun publikoaren arloko krisi horrek eta agintaritzak gaixotasunaren zabalkundea murrizteko hartutako neurriek, gainera, ondorio ekonomiko eta sozial latzak eragiten ari dituzte. Bestek beste, milaka enpresen itxiera, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente masiboak, enpleguen galera eta finantza publikoek behea jotzea esaterako. Horietaz gain, aintzat hartzekoa da ere herritar askoren bizi-kalitateak okerrera egin duela, dagoeneko eskasia egoeran daudelako edo egonen direlako norbere beharrak edo familiaren behar oinarrizkoenak ezin dituztelako asebate.

Horren aurrean, erakunde politiko guztiak ari dira, dagoeneko, eragile sozial eta ekonomikoekin batera ekonomia suspertzeko planak egiten eta Nafarroako toki entitateak ezin dira kanpoan gelditu. Izan ere, toki entitateek duten mailari, tresnei eta baliabideei esker ekarpen handia egin baitezakete ekonomia, ekitatea eta kohesio soziala berreskuratzeko amankomuneko ahalegin horretan.

Azken asteotan eta egoera alarma ezartzearen ondorioz, toki entitateek garrantzi handia izan dute, jada, osasun publikoaren, ordena publikoaren eta kolektibo zaurgarrienei arreta emateko alorrean neurriak hartzerakoan. Izan ere, behin baino gehiagotan toki entitateek haien herritarren ageriko beharrei erantzuteko ezinbestekoak ziren jarduketak egin baitituzte administrazioko beste mailetan erabakiak hartu baino lehen. Orain, zeregin hori bazterrean utzi gabe, haien herrien ehun ekonomikoa eta soziala suspertzeko ahaleginean konprometitu behar dute.

Toki entitateek, orain inoiz baino gehiago, haien herritarren eta bizilagunen ondoan eta horien zerbitzura egon behar dute, pertsona zaurgarrien aldamenean, lana galtzen dutenen alboan baita haien autonomoen, enpresarien, saltzaileen eta abarren ondoan ere, berreskuratze zail bati aurre egin beharko baitiote.

Erakundeen lehentasuna, orain, osasun publikoa eta herritar guztien ongizatea izan behar dira. Osasun krisia gainditzeko hartuko dituzten neurri guztiek pertsona oro izan behar dute kontuan eskubide-, betebehar- eta aukera- berdintasuna bermatzeko, jatorria edo administrazio-egoera edozein dela ere.

Era berean, gizartearen sektorerik zaurgarrienek jasaten ari diren babesgabetasuna dela eta, ezinbestekoa da Administrazioaren maila guztietatik babes sozialaren egungo sistema publikoa indartzea eta neurri sorta bat martxan jartzea pertsona zaurgarrientzako babes-sare gisa jarduteko.

Horretarako, toki administrazioek haien gaitasun ekonomikoari eta zorpetzeko gaitasunari lotutako baliabideak dituzte azken urteotan zor hori etengabe murriztuz joan direlako. Horretaz gain, eskumen sorta zabala dute eta udal esparruari lotutako zerga betebeharrak malgutzeko gaitasuna ere badute. Halaber, ordenantzen eta aurrekontuen bidez araudia ezartzeko gaitasuna dute haien herri eta hirien bizia egun ezinbestekoak diren neurrien bidez sustatzeko.

Horretaz gain, hurbiltasunaren abantaila dute haien herritarren arazoak identifikatzeko eta azkartasunez eta eraginkortasunez ekin ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, komeni da toki entitateek ekonomia eta gizartea suspertzeko plan propioa osatzea, bai era kolektiboan baita banaka ere entitate bakoitzak duen testuinguruari hobe doitzeko. Tokiko plan hori, betiere, Foru Komunitaterako abiatuko den planarekin bat etortzeaz gain, horrekiko koherentea izan eta horren barruan integratu beharko du.

Ezinbestekoa da Nafarroatik Foru Komunitateko herritarren errealitateari eta beharrei erantzungo dien estrategia bat diseinatzea, gure eskumenen eta autogobernuaren alorretik eta gure errealitateak duen balioa aitortuz.

Honako dokumentu honek helburu du toki entitateek Nafarroan eginen den ekonomia eta gizartea suspertzeko planari eginiako ekarpenak biltzea. Bestalde, erreferente izan nahi du bi helburutarako: Batetik, estatuko eta foruko administrazioei zenbait neurri eskatzeko, toki entitateek modu eraginkorrean krisia gainditzeko lagundu ahal izatea ahalbidetu dezaten. Eta bestetik, toki entitate guztietan eta bakoitzean har daitezkeen neurriak definitzen eta horien inguruan hausnartzen laguntzeko.

Horri dagokionez, honako dokumentu hau izanen da aipatu entitateen proposamenen oinarria, ezinbestean abiatu beharko diren foro eta sektore arteko mahaietan. Foro eta mahai horietan, bestalde, foru eta toki erakundearen parte hartzea ezinbestekoa da baita Foru Komunitateko eragile politikoen, sozialen eta ekonomikoen parte hartzea ere.

2. EKONOMIA ETA GIZARTEA SUSPERTZEKO PLANAREN OINARRIAK.

Honako plan-proposamena eta, kasua bada, udalerrri bakoitzean eginen direnak ondorengo oinarriak errespetatuko dituzte:

- Erakundearen arteko ahalik eta koordinaziorik handiena. Toki entitateek hartuko dituzten neurriek administrazioeko beste mailetan hartuko direnekin bat egin behar dute. Horretarako, ezinbestekoa da toki entitate guztien arteko etengabeko talde-lana, komunikazioa eta elkarlana.
- Osagarritasuna. Toki entitateek hartuko dituzten neurriek beste administrazioetan hartutako osagarri izan behar dute, ezarritako helburuak lortzeko eraginkortasun handiena izateko.
- Udalerrietako kohesio ekonomikoaren eta sozialaren sustapena. "Atzean inor ez uztea" azken asteotan denon ahotan dabilen leloa da eta, batik bat, toki entitateei egiten die erreferentzia. Izan ere, entitateotan askotan herritarrak banan-banan ezagutzen baitituzte eta toki entitateek izatez, legalki eta historikoki, kohesio soziala izan baitute ezaugarri.
- Pertsona eta kolektibo zaugarriekiko elkartasuna eta arreta. Aurreko puntuan adierazitakoarekin bat, toki entitateek eskumen handia dute arreta sozialari dagokionez eta lan garrantzitsua egin dezakete alor horretan. Arlo horretan hurbiltasuna gehigarri garrantzitsua da.
- Herritarren zein eragile guztien eta erakunde publikoen arteko elkarriketa bermatzea. Toki entitateek hartzen dituzten erabakietan edo egiten dituzten planetan bertako eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartzea ezinbestekoa da; eragile horiek izaera sozialeko entitateak izan edo enpresen, profesionalen, sindikatuen zein herritarren

elkargoak izan. Orain besteetan baino beharrezkoagoa izango da oraindik pertsonen entzutea.

- Tokiko baliabide publikoen eta horiei dagozkien diru-sarreraren eta gastuen kudeaketa arrazionala. Modu horretan, ahalegin handia egin beharko dela kontuan harturik, ez da arriskuan jarriko kasu kasuko toki administrazioaren etorkizuneko bideragarritasuna. Horretarako, ezinbestekoa da dagoeneko dauden baliabideak, bereziki transferentziak, azkar kudeatzea toki entitateei transferentzien helburua erabakitzen utzita eta justifikatzeko gehiegizko tramite burokratikorik gabe berehala aplikatu ahal izanik.
- Nafarroako Parlamentuan 25 milioi euroko aparteko funtsa onestea, kopurua handitzeko aukera egonik, toki entitateen gastu fiskalei, sozialei, osasun zein hezkuntza arlokoiei eta bestelakoiei aurre egin ahal izateko. Funts horrek covid-19ak eragindako larrialdiko egoeraren ondorioz eratorri diren gastuen hazkundeari eta diru-sarreraren murrizketari aurre egiteko lanabesa ere izan behar du.

3. UNEORO PERTSONEN OSASUNA BERMATUKO DUEN SUPERTZEA ETA DESESKALATZEA

Deseskalatzeak alarma egoeran pertsonen eta ehun sozioekonomikoaren jarduera murriztearen inguruan hartutako zenbait neurriren malgutzea dakar. Prozesu hori egoki bideratzeko, pertsonen osasuna arriskuan ez jartzea egon behar du oinarrian.

Hortaz, asmo handiko prebentzio plan ahalik eta eraginkorrena eduki beharra dago, besteak beste honakoak kontuan hartuko dituen:

- Onetsiko diren malgutze-neurri bakoitza aplikatzeko protokoloak edukitzea. Protokolo horiek egingarriak izan behar dute eta horiek egiteko garaian toki entitateen parte-hartzea kontuan hartu behar da, entitateak izango baitira, askotan, protokoloak aplikatu eta bete arazi beharko dituztenak. Protokolo horiek eraginkortasunez aplikatu ahal izateko, behar adina denborarekin jakinarazi beharko zaizkie toki entitateei eta herritarrei.
- Neurriak betetzen direla zaintzea eta neurriak bermekin betetzen direla zaintzeko behar adinako baliabideak egotea.
- Administrazioaren gainontzeko mailekin koordinatzea pandemiaren jarraipena egiteko eta deseskalatzearen fase berrien hasiera proposatzeko.
- Kutsadura arriskua ekiditeko, Norbera Babesteko Ekipo (NBE) egokiak ematea osasun arloko langileei, zentro soziosanitarioetako edo gizarte zerbitzuetako langileei, polizia-langileei baita ezinbesteko zerbitzuetako gainontzeko langileei ere.
- Halaber, NBEak langile guztien eskura jartzea.
- Birusaren zabalkundea ekiditeko, maskarak eta hidrogelak eta beste zeinahi baliabide herritarren eskura jartzea.

- Ahalik eta test kopururik handiena egitea: bai test azkarrak baita PCRak ere. Bereziki, ezinbesteko zerbitzuetako langileei eta arriskudun kolektiboei (besteak beste, hirugarren adinekoei eta gaixotasun kronikoak dituztenei). Horrekin batera, egoki jotzen diren bestelako neurriak hartzea langileen eta herritarren artean.

Lehentasuna izan behar da "bizitzak salbatzea" eta herritar guztien osasuna, ezinbestekoa baita ekonomiaren eta, oro har, gizartearen jardueraren suspertzea bermatzeko.

4. IZAERA OROKORREKO BEHARREZKO NEURRIAK

Edozein modutan ere, toki entitateek haien ahalmen guztia eraginkortasunez erabili ahal izateko, erakunde eskudunek, besteak beste, honako neurri orokorrak hartu beharko lituzkete:

- Batetik, entitateek aurrekontu-gerakina erabili ahal izateko, ezinbestekoa da aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudia aldatzea. Modu horretan oztupoak eta mugak ezabatuko lirateke, toki entitateek beraiek sortutako baliabide ekonomikoak kudeatzeko gaitasun osoa eduki ahal izanik; eta ez lituzkete eskumenak murrizturik izanen zorpetzeko gaitasunari dagokionez.
- Araudi hori aldatzea eta malgutzea beharrezkoa da ere bai, toki entitateak hein batean zorpetu ahal izateko.
- Horretaz gain, noizean behin Foru Administrazioaren laguntza beharrezkoa izan daiteke toki entitateek altxortegian izan ditzaketen likidezia zailtasunak arintzeko. Izan ere, tasen galerak, kontratuak bertan behera utzi izanagatik eman beharreko kalte-ordainek eta zenbait zergen atzerapenak diru-sarreren eta gastuen egungo egoera zaildu baitute.
- Era berean, aztertu beharko litzateke eta, kasua bada, administrazio eskudunei eskatu beharko litzaieke zenbait zergen legea aldatzea ehun ekonomikoa mantentzen laguntzeko.
- Bestalde, oso komenigarria litzateke Nafarroako ekonomia suspertzera bideratutako Inbertsio Plan bat edukitzea egungo Tokiko Inbertsio Planaren epealdia baino denboratarte luzeago baterako. Komeniko litzateke, halaber, plan berri horrek aurreikusitako kopuruak handiagoak izatea (gogoratu beharra dago aurreko Toki Inbertsio Planaren azken bi urteetan urte bakoitzerako kopurua 40 milioikoa zela eta egungoak 20 milioi, soilik, aurreikusten dituela) eta finantzarriak diren obra mota gehiago barne hartzea. Modu horretan, kudeatzen arina eta toki esparruan dinamikoa izanen litzatekeen suspertze ekonomikoa ahalbidetuko litzateke eta toki entitateei autonomia tarte zabala emanen litzaieke inbertsioak erabakitzeko.
- Horri lotuta, planak jasangarritasunaren ekonomia berrirantz jo beharko luke, hainbat forotan defendatzen den moduan. Ildo horretan, ekintzak sustatu beharko lituzke zenbait gai jorratzeko, besteak beste honakoak: energia sortzea eta aurrezteak; mugikortasun jasangarria; toki mailako biomasa proiektuak eta hondakinak kudeatzeko azpiegiturak. Halaber, arlo sozialean eta lurraldearen alorrean eten digitalarekin

amaitzeko ekintzak sustatu beharko lituzke teknologia libreen erabileraren ikuspegitik abiatuta.

- Nafarroako errealitatea kontuan harturik eta benetako eragina duten neurriak hartu ahal izateko, gure toki esparruko egituraren antolaketak berebiziko garrantzia du errealitate horren estatistikak, adierazleak eta informazio argia izateko orduan, are gehiago bizi dugun krisi-garai honetan. Horregatik, garrantzi berezia du lurralde mailako estrategiak definitzeak eta ezartzeak eta eskualdeko ikuspegia duten erakundeak sendotzeak datu horiek jasotzeko zein aipatu estrategia horiek abiatzeko.
- Toki Inbertsioen Planaren barruan tramitatzen ari diren obrei dagokienez, berriz ere diogu obra horiek ahalik eta lasterren egin ahal izatea beharrezkoa dela.

5. TOKI ENTITATEEN JARDUNERAKO ARDATZAK

COVID-19aren krisiak zerbitzu publikoak eskaintzeko eta jardun publikoan arazoak sortu ditu administrazioak eten direlako eta baliabide publikoak osasun larrialdiko egoerari aurre egiteko bideratu direlako. Arazo horiek, orokorrean, administrazioen antolakuntzari eta baliabideei ere eragin diete.

Nagusiki, jarduera ekonomikoak behea jo du eta horrek udalerrietako arlo guztietan ondorio latzak izan ditu. Batetik, biztanleriaren errenta erabilgarria murriztea eragin du, enplegua galtzeagatik eta enplegu-erregulazioko espedienteengatik soldatak murrizteagatik, baita prebentzio-materialetan gastu handiagoak izateagatik ere.

Bestetik, autonomoei eta enpresa txiki eta ertainei ere arazo handiak sortu dizkie negozio eta jarduerak aldi baterako edo behin betiko itxi direlako, betebeharrak ekonomikoak mantendu direlako edota, zenbaitetan, enplegu-erregulazioko espedienteetara jo beharra izan dutelako; baita osasun arloko prebentzio neurriek eragindako likidezia arazoak edo gain kostuak ekarri dizkielako ere.

Halaber, krisi ekonomikoak izaera sozialeko ondorioak izan ditu pertsonen ohiko bizitza errotik aldatu delako eta itxialdiaren, deseskalatzearen eta berrogeialdiaren neurriek pertsonen arteko ezberdintasunak sortu dituztelako.

Horregatik, toki entitateen jardunak hiru ardatz hauetan oinarritu behar du:

5.1. TOKI ADMINISTRAZIOAREN JARDUNA SUSPERTZEA.

Alarma egoerak iraun bitartean, toki entitateek haien jarduna ia osorik bertan behera utzi beharra izan dute. Esate baterako, herritarrei emaniko arreta, haur eskolen gisako zenbait zerbitzu, eguneko zentroak, kiroleko zentroak eta edadetuentzako zerbitzuak eten behar izan dituzte. Bestetik, aldiz, beste zenbait zerbitzu indartu beharra izan dute, besteak beste, gizarte zerbitzuak, pertsona zaugarrienentzako zerbitzuak, egoitzen arreta eta abar.

Orain, zerbitzu horiek guztiak martxan jarri behar dira, pixkanaka, deseskalatzeko neurriak hartu ahala eta eska daitezkeen osasun-baldintza guztiei men eginez. Bestalde, eskaintzen diren zerbitzuak berrikusi behar dira, gehienbat arlo sozialean, zein neurritan indartu daitezkeen ikusteko.

Honakoak dira har daitezkeen neurriak:

- Zerbitzuak ematen dituzten enprekin etendako kontratuak aktibatzea ondorengoak eskaintzen hasi ahal izateko: musika eskolak, edadetuentzako zentroak, kirol zentroak.
- Eremu publikoetan dagozkion osasun eta prebentzio neurriak ezartzea, langileen segurtasuna eta osasuna bermatuz lan postuetara itzultzen doazen heinean.
- Programak aktibatzea eta indartzea kulturaren, kirolaren, trebakuntzaren, aisialdiaren eta abarren arloan eta, horrenbestez, sektore horietako profesionalen kontratazioa ere aktibatzea eta indartzea.
- Udal-instalazioen mantentze-lanak berrabiatzea.
- Langabetuak kontratatzeko programak indartzea Eskubide Sozialen Departamentuak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dituzten programen barruan. Agian, ekarpen ekonomiko handiagoa egin beharko da onuradunen kopurua handitzeko.
- Udal-aurrekontuak berrikustea ezinbestekotzat jotzen diren zerbitzuentzako baliabide gehiago bideratu ahal izateko.
- Toki entitatearen inbertsio plan bat egitea. Plan horrek, gainera, jasangarritasun irizpideak kontuan hartzeaz gain ekonomia berri baterantz bidea egin beharko luke.
- Jendearentzako arreta berrabiatzea eta sustatzea herritarren beharrak jaso eta bideratzeko.
- Hala erabakitzen duten udaletan, bulego bakarra sortzea gainerako administrazioekin behar bezala komunikatuta eta koordinatuta, laguntzen eskaerak eta ebazpenak bateratu ahal izateko, dena errazago eginez eta mugikortasun-murrizketarekin bateragarri eginez, zeina oraindik gomendagarria izango baita susperraldiaren lehen hilabeteetan.
- Nafarroako Gobernuak toki entitateetan Administrazio Elektronikoaren behin betiko ezarpena sustatu eta koordinatu behar du. Horretarako, azpiegitura nahikoak eman behar dizkie lehen baino lehen.
- Era berean, Nafarroako Gobernuak lanean jarraitu beharra du haren administrazioan Administrazio Elektronikoaren ezarpena % 100ekoa izan dadin lortzeko.

5.2. TOKI JARDUERA EKONOMIKOA ETA, BEREZIKI, ENPRESA TXIKIAK ETA AUTONOMOAK SUSPERTZEKO NEURRIAK.

Gure herrien jarduera ekonomikoa ahuldu egin da, gure saltokiek, tabernek, enpresa txiki, ertain eta handiek itxi egin behar izan dute edo murriztu egin zaie jarduera eta, beraz, diru-sarrerak. Beraz, jarduera horri eustea ahalbidetuko duten neurriak hartu behar dira, eta, horretarako, hainbat motatako neurriak behar dira: alde batetik, enpresa horien likidezia bultzatuko duten eta ordainketei aurre egin ahal izateko neurriak, eta, bestetik, eskatutako baldintza berrietara egokitzea eta galerak konpentsatzea ahalbidetuko dieten laguntzak.

Honakoak dira har daitezkeen neurriak:

- Udalerriko enpresek eta autonomoek dituzten likidezia arazoak leuntzeko, kobratzen zaizkien zergak malgutuko dituzten neurri fiskalak aplikatzea.
- Administrazio eskudunei zerga-onurak eta -salbuespenak arautzea eskatzea, hala behar duten jarduera ekonomikoetarako, jarduera horiek abiatzen laguntzeko. Araudia progresibotasun, justizia eta elkartasun printzipioen arabera egin beharko da.
- Ekonomia-jardueren gaineko zergari dagokionez, neurriak ezarri beharko dira zergadunek jardueraren behin behineko eteteari dagokion zatiari aurre egin behar ez izateko.
- Tokiko saltokiei laguntzea hurbileko merkataritza sustatuz azoken, banaketa sareen, sustapen kanpainen eta abarren bidez.
- Bitarteko digitaletan (web...) oinarritutako saltzeko sistema berriak sortzen laguntzea. Esate baterako, teknologia berriak eta etxez etxeko zerbitzua.
- Beste administrazio batzuek onetsitako laguntzak berrikustea eta osagarriak diren beste laguntza batzuk onestea enpresa eta autonomoentzat establezimenduak berriro irekitzeko, establezimenduak eta espazioak egokitzeko, langileak mantentzeko, galerak konpentsatzeko, modernizatu eta digitalizatzeko eta abar.
- Beste erakunde batzuek onetsitako laguntzen kudeaketa administratiboekin laguntzea, besteak beste, ICO maileguen, alokairurako laguntzen, Aldi Baterako Enplegu-Erregulazioko Espedienteen tramitazioaren kasuetan eta abar.
- Administrazioak laguntzak arin tramitatzea eta kaltetuek laguntza horiek arin kobratzea laguntzaren eskaera datatik kobratze datara hilabeteak igaro ez daitezen.
- Eremu publikoa erabiltzeko araudia malgutzea, egun baino eremu handiagoa behar duten jarduerak sustatzeko, esate baterako terrazentzako.
- Eraikuntza sektorearen jarduna erraztea lizentziak eta bestelako izapideak arinduz, batez ere, birgaitze-arloan.
- Toki garapeneko taldeen eta agentzien balioa sustatzea krisiari aurre egiteko diagnostikoa eta neurrien proposamenak egiteko baita aholkularitza eta laguntza lanetarako ere. Era berean, kontsumitzaileen eta enpresarien elkarteak eta izaera soziala duten bestelako taldeak ere aintzat hartzea.
- Ekonomia sozial eraldatzailearen zeregina sustatzea interes sozialeko ekimenentzako baliabideak bideratuz, zentzurik zabalenean, eta ekonomia soziala indartzera bideratutako erosketa publikoa sustatuz, dagoeneko Kontratuei buruzko Foru Legean jasotzen den moduan.

5.3. GIZARTE GAIETARAKO SUSPERTZE-NEURRIAK.

Zalantzarik gabe, alderdi soziala ezinbestekoa da gizartea eta ekonomia suspertzeko. Lehenik ere adierazi den moduan, alarma egoeran zehar administrazioen jarduna areagotu

egin da arlo horretan eta indartzen jarraitu beharko du ere deseskalatzeak iraun bitartean baita suspertze fasean ere.

Arlo horri dagokionez, toki entitateek berebiziko garrantzia dute. Izan ere, oinarrizko gizarte zerbitzuak, edadetuen zentroak, egoitzak, aterpetxeak baitituzte, larrialdiko laguntza ematen baitute eta abar. Zerbitzu horiek guztiak indartu eta zabaldu beharko dira, orain arte zerbitzu horiek erabiltzen ez zituzten herritarrek beharko dituztelako krisiarengatik, enplegua galdu izanagatik eta abar.

Honakoak dira har daitezkeen neurriak:

- Gizarte zerbitzuak sendotzea eta behar egoerak antzemateko jarduna areagotzea.
- Gizarte zerbitzuak sustatzea premia handia dutenen beharrak laguntza neurriekin arintzeko, besteak beste honakoekin: jantoki sozialekin, eskolako jantokietarako laguntzekin, erosketa bonoekin eta premia handia duten familientzako larrialdiko laguntzekin.
- Arreta berezia jarriko da zaurgarrienak diren kolektiboengan, edadetuengan eta bazterketa arriskua duten pertsonengan. Horretarako, gizarte zerbitzuak eta bertan dituzten baliabideak berrikusi behar dira horiek sendotzeko eta, kasua bada, handitzeko edo Nafarroako Gobernuari handitze hori proposatzeko.
- Adinekoen konfiantza berreskuratzeko eta pertsona horiek gizarte-bizitzara itzultzea errazteko ekintzak egitea: gune seguruak sortzea eta abar.
- Herritarrei zuzendutako kontzientziazio eta pedagogia lanak egitea segurtasun arauak eta protokoloak egoki bete ditzaten.
- Zentro soziosanitarioak berreskuratzea behar adina langile kontratatuz.
- Foru Komunitateko Administrazioari asmo handiko Enplegu Plan bat eskatzea toki enplegu planak barne hartu eta sendotuko dituena.
- Osasun krisiak kolpatutako gainontzekoei laguntzak eskaintzea, bereziki, langabetuei. Laguntza horiek ere beste administrazio publikoek onetsitako laguntzen osagarri izanen dira.
- Udalerriko kultura-, kirol-, aisialdi- eta gizarte-jarduerak dinamizatzea. Horrek udaletako kultura- eta kirol-jarduerei berriro ekitea eskatzen du, hezkuntza- eta kultura-jarduerei, alegia. Halaber, krisiak beste sektore eta kolektibotan (kultur sektorean, elkarteetan, musika bandetan eta abarretan) izan duen eragina aztertzea eskatzen du.
- Udalerrietako mugikortasuna arautzea pertsonen arteko distantzia beharretara eta osasuna babesteko neurrietara egokitzeko.
- Helburu sozialetarako etxebizitzak birgaitzen laguntzea eta etxebizitzaren bizigarritasunari buruzko araudia malgutzera sustatzea kolektibo zaurgarrienei etxebizitzak eskuratzeko erraztasunak emateko.
- Krisi honek argi erakutsi digu oso atzeratuta gabiltzala teknologia berrietan. Bultzada handia eman beharra zaio teknologia berrien erabilera normalizatua izan dadin esparru guztietan, bai hezkuntzan bai profesionalean.

- Toki entitateek, gizarte zerbitzuekin batera, lan handia egin dute familia zaugarrienean dituzten hezkuntza defizitei erantzuteko; izan ere, familia horien seme-alabak izan dira krisialdi honen eta bizi dugun hezkuntza-egoeraren kaltetuenak. Egoerak sortu dituen beharren ondorioak datorren ikasturtean eragina izanen dute, batik bat, etorkin eta familia zaugarri kopuru handia duten ikastetxeetan. Horregatik, ikastetxe horiek arreta berezia behar dute eta gizarte zerbitzuak sendotu beharko dira. Halaber, gizarte zerbitzuetako beharrak antzemateko zerbitzua ere sendotu beharko da ez bakarrik behar sozialak antzemateko baita hezkuntza-beharrak antzemateko ere.
- Hezkuntzarekin batera ekintzak egitea neurri osagarriak ezartzeko krisiaren ondorioz hezkuntza-arrakala handiena izan duten ikastetxeetan. Ekintza horiek Hezkuntza Departamentuak gidatu beharko ditu hura baita egoera zuzentzeko halako hezkuntza mekanismoak ezarri behar dituen gizarte zerbitzuekin eta toki entitateekin elkarlanean.